

URTEKARIA
barruan
2016
hilez
hile



URKO ZAIN DAGO 2017

aldats behera egiteko



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopia, katarata eta prezbiziaren kirurgia
Begi lehorraren tratamendua



CRF AMOSTEGI

ERREHABILITAZIO FUNTZIONALAREN ZENTROA

* ERREHABILITAZIOA

- Osakidetza - Aseguruak

* FISIOTERAPIA PERTSONALIZATUA

Esku terapia - Osteopatia / INDIBAterapia (Radiofrequentzia) /

Txizaren inkontinentzia (emakumeak eta gizonak)

E.P.I.: Azal-elektrolisi intratisularra / K-LASERterapia / Puntzio lehorra

* HAURDUNEN OSASUNARENTZAT ETA ERDIONDORAKO DENETARIK

- Amatasunerako prestakuntza:

Haptonomia eta Metodo tradizionala (taldeka/banakakoa)

- Episiotomiaren prebentzioa, Txiza-inkontinentzia, Prolapsoak: EPI-NO + Masajea

- Lunbalgien, Sakroilialgien, Coxigodini... esku-tratamendua

- Pelvis-zoruaren balorazioa erdiondoan

- Tratamenduak txizaren inkontinentzia eta/edo inkontinentzia fekalerako, zesareen

orbaintzat, episiotomiak, perineoko mina, etb.

- Antzutasun funtzionalaren tratamendua

* MEDIKUNTZA ESTETIKOA

- Zelulitisaren tratamendua kabitazio ultrasonikoaren eta elektrolipolisisaren bitartez

- Eskuzko drainatze linfatikoa (DLM) eta/edo presoterapia

- Elektrodrainatze linfatikoa eta baskularra (zainetako itzuleraren areagotzea)



Muzategi, 2 behea Tfnoa/Fax. 943 20 34 46 info@crf-amostegi.com www.crf-amostegi.com

RPS 233/13



INPLANTEEN PROMOZIO BERRIA!



Urtarrilaren 2-tik - martxoaren 31-ra

Informa zaitez!

943 36 63 77

www.dentalaldaz.com



Lasarte - Oria
Ola kalea, 10

Elgoibar
San Bartolomé, 22

Tolosa
San Frantzisko, 39

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkarte@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Jose Luis Gorostegi, Silbia
Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Andoni Zendoia

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.150 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto! "k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Eskutitzak

– Urtarrilaren 14an, denok Bilbora! –

Pertsonak gera, herritarrak gara. Denon eskubideak errespetatuak izan daitezen sinisten dugun herritarrak, Euskal presoek bizi duten egoeraz kezkatu gauden pertsonak. Kezka horrek ekarri gaitu elkar baturik ekimen honetan parte hartzera. Beharrezko garelako denok, beharrezko direlako horrelako ekimenak, askotariko ekimenak, espetxeetan giza eskubideak urratzen jarraitzen duten heinean, beharrezkoa delako mugitzea, gertatzen ari den egoera aldatzeko.

Salatzen Dute, Salatzen Dugu, Salatzen Duzu... ahots askotarikoak gaude hemen, askotarikoak garelako espetxe politika aldarazi behar dugula uste dugunok. Sakabanaketa eta urrunketa, larriki gaixorik diren euskal presoak, zigorrak batuketa eza, isolamendua eta bakartzea, 7/2003 salbuespeneko legedia... Nahikoa da, gaur egun indarrean dagoen espetxe politikak, eskubide urraketa sistematikoa dakar eta hori amaitu behar delako, salatzen dugu.

5 urte dira ETAk armak erabiltzeari uko egin zione-

tik, eta oraindik orain garaile eta garaituak lerro okerra jorratzen dihardute. Konponbidea eta Bakea oztopatu nahi dituzte, etorkizunari ateak itxi, baina guk herritarrok ez dugu horrelakorik nahi. Konponbide eta bake nahi handiak ditugu, azken egunotan ikusi dugun moduan, herritarrok norabide hori gorpuzteko ahalegin sendoak egiten dihardugu. Sare, Giza Eskubideen, Konponbidearen eta Bakearen aldeko lanean martxan dago eta jarraituko du, gure ondar aletxoa ipini nahi diogu guzti honi. Konponbidean aurrera egin ahal izateko, lehenik giza eskubideak errespetatu behar direla pentsatzen dugu eta horretan gabiltza, saretzen jarraitu behar dugu guztion artean soilik aldaraziko degulako egoera hau.

Salatzen Dute, Salatzen Dugu eta Salatzen Duzu... herritarrok elkarrekin salatu behar dugulako, urtarrilaren 14an Bilboko kaleak bete behar ditugu asko izanez, gero eta gehiago izanez. Entzun eta Senti gaitzate.

Eibarko SARE

HURRENGO ALEA URTARRILAREN 13an

– DATORREN ASTEAN EZ DA ALERIK IZANGO –

Besteontzako gabonetako oporrak direnak guk urte berriaren lehen astean hartzen dugunez, eskuartearen duzuen Urtekariaren ondorengo hurrengo zenbakia (Kirolkitto!) urtarrilaren 13an jaso ahal izango duzue zuen buzoietan. Barkatu eragozpenak eta, bitartean, ondo amaitu urtea eta hobeto hasi hurrengoa.

ERREDAKZIOA

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LEKA.- Baina. "Lekak patatekin dakaguz gaur bazkaltzeko". Landare batzuen fruituek izaten duten zorro antzekoa. "Honek arboliak lekia emoten dau".

LEKA-PATATIA / LEKA-PATATAK.- Lekak eta patatekin egindako platera. "Horko leka-patatia lakorik ez jaat sekula aprobau".

LEKATAKO.- Lekak, patatak, sagarrak eta antzekoak jasotzeko erabiltzen den amantala. "Lekatakuan batuta ekarri eban katakumia".

astean esanak

"Eguberriko merkatuaren lekuan jarri den noria handiari begira, otu zait aurtien Aita Noelen aipamen gutxiago eta Olentzeroren gehiago entzuten dela. Baina Olentzerok ez du beste zenbait pertsonaiak adina mitologia, mehea da haren historia: mendian aditu zuen Jesusen berri ematera etorri zela, eta haurrei aipatzen zitzaizela beldur emateko... Guk, mitozaleak baikara, laster bilatu diogu zer edo zer mamitsuago. Eta hara non 'azken jentil' bilakatu den"

(ANUNTXI ARANA, ANTROPOLOGOA)

"Kultura ordezkariak beti izan dira kulturaren mundutik kanpo dauden pertsonak. Baina horrek berdin du: herri guztietan badugu kultur sail bat, eta kultur ordezkari bat. Gaur egun edozein herritan gure kulturarekin lotura duten ikuskizunak programatzea ez da hain zaila. Baina ez da egiten. Gero gaztetxeak daude: hainbat gaztetxe ordezkari publiko horien lekua hartu dute. Eta orain euren dirua hartu behar dute, baldintzak hobetzeko. Gaur egungo gizartea su festa artean bizi da: BBK Live, Jazzaldia... Hor ikuskizuna dago, ez musika. Herri txikitian, ordea, zure kontzertua beste zeezer bihurtzen da"

(GARI, MUSIKARIA)

"Porlanez konpontzen dute dena agintari batzuek, aurrerabidea delakoan eraikitzea, obra handiak eginda. Burua jan digute obra publikoekin, erraz onartzen baititu gehiengoak. Irakatsi digute porlanean dirua jartzea inbertsioa dela; baina kulturaren, euskaran eta hezkuntzan, esaterako, gastua. Porlanak zorianasuna dakarrelako, aurrerapena eta modernitatea. Eta dirua: asko eta ugari. Baina ez herritar xumeoi, beti-betikoei baizik. Betikoa. Urte berriak ere porlan zaharra ekarriko digu, erraustegiaz gain AHTari buruz ere adostasunak lortu dituztelako Gasteiz eta Madrilgo gobernuen artean"

(LEIRE NARBAIZA, IRAKASLEA)

Gabonetarako irteera gidatuak Geoparkean

Deba, Mutriku eta Zumaiak osatzen duten Euskal Kostaldeko Geoparkeak bisita gidatuak eskainiko ditu Gabonetan eta, jende asko oporretan egongo dela aprobetxatuta, proposamen ezberdinez osaturiko programazio zabala prestatu du. Bisita gidatuak abenduaren 29 eta 30ean eta urtarrilaren 4, 5, 7 eta 8an eskainiko dituzte. Irteeretan, besteak beste, Geoparkeko flyscha eta bertako labarrak itsasontziz zein oinez gertutik ikusteko, Mutrikuko Olatz bailaran karsta ezagutzeko eta Goienetxe baserriko gazta dastatzeko aukera izango da. Bisita bakoitzari buruzko informazio osoa eta ordutegiak Geoparkeko webgunean www.geoparkea.com kontsulta daitezke. Erreserbak online egin daitezke edo, bestela, Mutriku, Deba eta Zumaiako Turismo Bulegoetan.




EGO-ren entsegu irekia astelehenean

Euskal Herriko Gazte Orkestrako musikariak Eibarraren daude, Hezkuntza Esparruan, urtarrilean EAEko hiriburuetan emango dituzten kontzertuak neguko topaketan prestatzen. Emanaldietan Harold Lloyd-en "Safety Last!" (1923) film mutuari musika ipiniko diote, zuzenean, eta horien aurretik entsegu irekia eskainiko dute urtarrilaren 2an, 17:00etan Hezkuntza Esparruko aretoan (sarrera libreza izango da). Kontzertuak, berriz, bata bestearen atzetik izango dira: urtarrilaren 3an Donostian, Victoria Eugenia antzokian; urtarrilaren 4an Gasteizen, Principal antzokian; eta urtarrilaren 5ean Bilbon, Euskalduna jauregian. Hirurak 20:00etan hasiko dira.



Hiru Erregeen kabalgata

Urtarrilaren 5ean ailegatuko dira Hiru Erregeak eta, herriko kaleak kabalgatan zeharkatu baino lehen, Ipurua kiroldegian eurentzat prestatu dituzten dantzak ikusiko dituzte. Ipurua Dantza Garaikidea eta Gimnasia Erritmika taldeek eta Eibarko Balletkoek 17:00etan ekingo diote erakustaldiari. Kabalgata, berriz, 19:00etan abiatuko da Untzagatik (Urkizuraino jaitsiko da) eta, Untzagara bueltan, 20:00etatik aurrera ume guztiei harrera egingo diete Meltxor, Gaspar eta Baltasarrek.



Goian, gabonetako loteak jaso zituzten bezeroen taldea. Behean, eskaparate lehiaketako irabazleak.



Dendarien Elkartearen opariak

Aurreko asteko barixak banatu zituen Eibarko Dendarien Elkarteak, Gabonak direla eta, bere bezeroen artean zozketatu dituen 25 loteak, elkartearen bulegoan. Horrez gain, ekitaldi berean jaso zituzten sariak aurtengo eskaparate lehiaketako irabazleak. Zorionak!

Zapatuetako tailerrak

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat antolatutako Zapatuetako Tailerrak egitasmoaren barruan emango diren eskulan-tailerretan parte hartzeko izen-ematea urtarrilaren 13an zabalduko dute (www.astixa.com webgunean, urtarrilaren 22ra arte). HH-ko 3. eta 4. mailakoentzat egingo den Dantza Garaikidea tailerlean izena emateko, berriz, Pegorara joan beharko da.

Olentzero joan zaigu...

Primeran ibili ziren aurreko zapatuan Olentzeroren kalejiran parte hartzera animatu ziren guztiek eta, tarteka euri pixka bat egin bazuen ere, jendetzak lagundu zion Olentzerori Urkizutik Untzagarainoko ibilbidean. Kalejiran egindako argazkiekin albuma osatu dugu, nahi duenak etakitto.eus gure web orriko mediatekan sartu eta bilduma ikusteko aukera izan dezan.



Gabonetako parkea urtarrilean ere zabalik

Umeak oporretan daudela eta, egunotan martxa betean dabiltza Astelena Gabonetako haur-parkean. Gaur eta bihar 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:30era zabalduko dute eta zapatuan (abenduarien 31n), berri, goizez bakarrik. Baina, lasai, ailegatzear den urte berrian ere joateko aukera izango da eta. Urtarrilaren 2, 3, 4, 7, 14, 21 eta 28an ere ohiko ordutegian atak zabalduko dituzte eta. Sarrerak 3 euro balio du (doan, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren bonoarekin).

Artisauen azoka urtarrilaren 5era arte zabalik

Topalekuan dagoen "Made in Eibar" Gabonetako artisa-azoka urtarrilaren 5era arte egongo da zabalik, egunero 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:30era. Eibart elkarteak antolatuta duen azokan 7 postu daude aurten eta denetan eskaintzen dituzte Eibarko artisauek egindako lanak.





Funeraria-Ehorztxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>24 orduko zerbitzu iraunkorra 943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea GRUPO Funeuskadi</p>	

Bidebarrieta, 5 **Tel. 943 201 547**

CAPI

ESTETIKA ZENTROA ETA LURRINDEGIA
facebook.com/capiestetica

BONO BEREZIAK
Sasoi honetan opariak egiteko aukera bikaina



BONO
 TRATAMIENTO FACIAL Y CORPORAL DEPURATIVO

Bidebarrieta, 5 / Tel. 943 20 15 47 / 20600 EIBAR

AURPEGI TRATAMENDUAK

BETILE LUZAPENAK
BETILEETARAKO LIFTINGA
GEL ATZAZKALAK
IA BETIRAKO MANIKURA

LASER DEPILAZIOA

30€

zona bakoitza

Hanka osoak + Izterondoak: 90€

TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO



Zeramika Eskolako jaiotza

Portalean, sarrera apaintzen, Udal Zeramika Eskolako ikasleek egindako jaiotza ipini dute aurten ere. Urtero aldatzen dute jaiotza eta bera osatzen duten figura eta bestelako piezak, horiek egiten dituzten artistak etxeok dira eta. Horregatik, urte batetik bestera jaiotza goitik behera aldatzeko arazorik ez dute izaten.

Argazkilaritza-ikastaroa

Urtarrilerako argazkilaritza-ikastaroa antolatu dute Arrate Kultur Elkarteak, Jose Luis Irigoienaren eskutik. Klaseak urtarrilaren 9, 11, 16, 18, 23 eta 25ean izango dira, 19:30etik 21:30era. Izena emateko arratekultu@gmail.com helbidera idatzi, 943202299 telefonora deitu edo bulegora joan (bazkideek 25 euro, besteek 30 euro).



Familian gozatzeko antzezlanak

Datorren martitzenean "Magia lapurra" umeendako antzezkizuna eskainiko dute Txalo Produzioak taldekoek Coliseoan, 17:00etan (5 euro). Begoña Bilbaok zuzendutako lanean Asier Kidam, Alfonso Diez, Iraitz Lizarraga eta Bittor Agirre antzezleek jardungo dute, magia eta sorpresaz betetako istorioa kontatzeko.



Gabonetako otarrak

Mogel Iasiko 4. mailako ikasleen Gabonetako otarraren zozketan, zenbaki saritua 12.400 izan dela eman dute aditzera ikastetxeko ardurdunek. Eta Eskozia La Bravak abenduaren 22an zozketatu zuen Gabonetako otarra, San Juan kaleko Koxka tabernan eta zenbaki saritua 2.137 izan da (Asier Loidik salduta). Erreserbako zenbakia, berriz, 0980 da (Luis Avilak saldutakoa). Irabazleak urtarrilaren 10era arteko epea izango du ardurdunekin kontaktuan ipini eta saria eskatzeko.



ELIAS TERUEL LUQUE

2016ko abenduaren 23an hil zen

"ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTEAN"

ETXEKOEK





Banatu dute ...eta kitto!-ren otarra

Beatriz Mayo izan da ...eta kitto! Euskara Elkartearen Gabonetako otarraren irabazlea. Saridunak aurreko astean, eguen arratsaldean deitu zuen ...eta kitto!-ra, abenduaren 14an egindako zozketan saritutako 6314 zenbakia berak zuela esaten, eta hurrengo egunean jaso zuen saria El Corte Inglesean, ...eta kitto!-ko eta Eibarko dendako ordezkarien eskutik. Kanean saldu da aurtengo zenbaki saritua eta horrela, kanean rifa erosita eraman du 2.000 euroko balioa duen otar ederra. Irabazleari zorionak eta on egin eta rifak erosi dituzuen guztioi, berriz, mila esker emandako laguntzagatik!

Gabonetarako ekitaldiak Amañan

Amesti, Azkena, Gau-Txori, Jan Ta Edan, Lau Bide eta Or-On-do, Amaña auzoko tabernek, udalaren laguntzarekin, Gabonak dirrela eta hainbat jarduera berezi prestatu dituzte. Egitarauko lehen jarduerak egin dira, baina Errege bezpera ailegatu arte beste askotan parte hartzeko aukera izango da oraindik ere: gaurko Tor Magoaren ikuskizuna antolatu dute; abenduaren 31n, eguerdian, cava eta kiskillak banatuko dituzte eta arratsaldean, berriz, triki-poteoa egingo da; urtarrilaren 3rako garagardo-dastaketa prestatu dute (Azkena tabernan); urtarrilaren 4an "ekitaldi sorpresa" hartuko du Lau Bide tabernak; eta urtarrilaren 5ean, berriz, "magi-poteoarekin" agurtuko dituzte Gabonak.



Idazlearekin Harixa Emoten

Urte berria hasi eta berehala, martitzenean izango da Idazlearekin Harixa Emoten euskarazko irakurketa klubaren hurrengo saioa, 19:00etan Portalean. Alaine Agirre izango da gonbidatua eta irakurleekin batera "X hil da" bere liburuari buruz egingo du berba. Hilean behin egiten diren saioetara 2016an etorri diren idazleak, bestalde, Inazio Mujika, Juanra Madariaga, Aritz Gorrotxategi, Lander Garro, Jasone Osoro, Anjel Lertxundi, Asier Serrano eta Joxemari Iturralde dira.

ASTELENA Gastroteka



Otsailak 18
jardunaldi
gastronomikoa

Ontze desberdinetako
okela
dastaketa

Estaziño, 7

ERRESERBAK

943 20 70 32

Plaza mugatuak



Arregi - Dominguez ARRAINDEGIA

Bidebarrieta, 4
943 20 11 38

Ego-Gain, 9
943 20 32 09

Zorionak

Urte Berri On

Mariskoak
Arrain freskoa eta izoztua
Enkarguak hartzen ditugu
Ondarruko arraina

Bizkaia mendiz- mendi ezagutzeko aukera bikaina

Hori da urte berriarekin batera Eibarko Klub Deportiboko mendi batzordeak eskaintzen duena. Bizkaiaren itzuli hori urtarrilaren 14an hasiko da eta 18 etapetan banatu dute, euretako hamahiru 2017ko hainbat zapatutan egitekoak. Aipatutako lehenengo etapa hori Eibarren hasi eta Kalamuatik Ondarroara eramango ditu parte-hartzaileak.

Bizkaiko Itzuliaren azken etapa, bestalde, 2018an izango da, urte horretan izango den bosgarrena eta, Elorrion hasita, Intxortatik Eibarrera bueltatuko dira mendizaleak. Prestatutako egitarauaren helburua gure inguruneko mendietatik zehar ibilbide erakargarrietako bat egitea da eta, horretarako, mendigune interesgarrietako batzuk zeharkatuko dituzte: Gorbeia, Durangaldea, Salbadako mendizerra, etab. Ibilbidearen eta-

pak kostaldetik hasiko dira erloju-orratzen aurkako norabidea eramanez eta hainbat herritan amaitzeko: Ondarroa, Is-paster, Gernika, Bakio...

Etapek zailtasun bereziak sailhesten dituzte eta mendian ibiltzera ohitutako edozeinentzat aproposak izateko pentsatuta daude. Batezbesteko distantzia 20 kilometrokoa da eta irteera bakoitzean gailurren batera igoko da: esaterako, Ondarroara joateko Kalamuatik egingo dute bidea



Urte Berria Urko tontorretik

Urtero bezala, Klub Deportiboko Mendi Taldeak deialdia egiten die Eibarko mendigoizale guztiei urte berriari Urkoko igoerarekin hasiera eman diezaioten. Bakoitzak nahi duen ibilbidea eta ordutegia aukera baditzake ere, mendi tontorreko argazkian denok bat egiteko asmoz, bi proposamen egiten dituzte: goizeko 09:00etan Klub Deportiboaren atarian bildu, herritik irten eta Arrajola baseritik zehar joateko da lehena; bertan bidea ezagutzen duen jendea egongo dela diote, inork behar izanez gero. Bigarrenak, bestalde, 10:00etan jartzen du hitzordua Ixuan, bertatik gora egiteko. Batzuk zein besteak 10:30ean batuko lirake tontorrean.



urtarrilaren 14an. Azken batean, eroso ibilita bost eta sei ordu bitarteko iraupenean egin daitezkeen ibilbideak proposatzen dira. Horrez gain, autobus-irteerako ordutegiak parte-hartzaile guztiengana hobeto egokitzen den denboran egiteko moduan ezarriko dira. **Parte hartu nahi duenak Klub Deportiboan eman behar du izena aste bitartean, martitzen eta eguenetan 19:30-etik 20:30era. Autobusark 12 euro balio du.**

Irteerak adin guztietako jendearentzat dira eta Bizkaiko Bira hau aproposa izan daiteke *"mendi zaletasuna duten gazteek ere bertan parte hartzeko, paraje berrien eta naturaren edertasunaz gozatzeko aukera"* izango delako. Ondarroara antolatutako txangorako autobusa Unzaga Plaza hotelaren aurrean izango da 07:45ean poltsak lagatzeko. Irteera Klub Deportiboaren aurretik egingo da 08:00etan eta Ondarroatik itzulera 18:00ak inguruan.

Eibarko mendietatik korrika eginez

Eguberriko goizeko 8:15ean 35 lagun bildu ziren 'Deporren aurrean' Eibarko mendietatik korrika egiteko eta, batez ere, goiz zoragarria pasatzeko asmoarekin. Eta baita asmatu ere! Aurten, gainera, ia herena nekak ziren. Txalo bero bat eurentzat ere!





ANGEL TOÑA, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko kontseilaria:
"Gaur 25 urte inguruko langabetuak epe luzera lana izango duela uste dut".

ANGELA LINARES, Lagun Taldeko monitorea: "Argatzako Jardifetan daukagu lokala eta asteen hiru egunetan egoten gara. Astelehen eta eguaztenetan fitxak egiten dituzte, irakurketa lantzen da, matematikak...".

ELENA MARTIN, Gospel Bilbaoko eta Eibarko Koru Gazteko zuzendaria):
"Txikitatik gustatu izan zait musika beltz estilo hori eta koru gazteekin jardundakoan ere beti sartu izan dugu gospel kantu bat edo beste".

Urteari errepassoa

Urkora igota hasi zuten urtea askok. Urteroko moduan **Hiru Erregiak** bisitan etorri ziran eta, kabalgataren aurretik, edarto pasatu eben kiroldegixan euren-dako prestatu zittuen dantzak ikusten. **Auzokoak** alkartekuak be, urteroko martxan, **Gureak** taillarrekuendako bazkarixa preparau eben. Eta, urteroko kontuekin jarraituta, **San Sebastian eguna** ospatzeko, **Danborradako** kontzertua hartu eban Coliseo antzokixak. **Ustekabe** fanfarreko musikuak, barriz, jaixa Donostian bete-betian disfrutau eben, hango danborradan parte hartzen egon ziran eta. Eta asko disfrutau eben **Lagun Taldekuak** eta euren musika eta dantza ikuskizuna Unibersidade Laboralian ikustera juandakuak. Eta umiak disfrutatzen toki barrixa inaugurau eben hillaren 11n: **Jazinto Olabe**ko ludotekia. **Armagintzaren Museua** Portalean inaugurau ebela bederatzi urte bete ziran 18xan. Eta 100 urte bete zittuan **AYA** eskopeta taillarrak, hori ospatzeko, Azitaiñen bazkarixa antolatu eban. Eskualdeko eskintzaren barri emotera Madrillera, **Fitur turismo azokara** juandakuak **Debegesari** emondako **sarixarekin** bueltau ziran. Eibar Sahara Elkartekuak, ohikuari jarraituta, **Sahararen aldeko Euskal Karabanian-dako** elikagaixak batzen ibilli ziran. Aurtentzen **Aratostiak** oso goiz ailegau jakuzen eta, urteko lehen hillia agurtu baiño lehen, koko-dantzariak eta kokomarruak geurera ailegau ziran, **Kezka Dantza Taldiaren** eskutik.



AYA eskopeta taillarraren 100 urtiak ospatzeko bazkarixa antolatu zeben Azitaingo erretegixan.



Errefuxiatuerei Laguntzeko CARE Taldia sortu eben gure herrixan, beste neurrixen artian.



Umiak disfrutatzen toki barrixa, Jazinto Olabeko ludotekia, inaugurau eben.



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Bidebarrieta 20
Tlfno: **943 2016 69**





TERESA ARANGUREN, kazetaria: "Gizarte bat benetan ulertu nahi badugu lehenik eta behin horiek errespetatzen ikasi behar dugu".



KOLDO ZUAZO hizkuntzalari: "Dialektoak dira hizkuntza bizirik dagoen seinale. Orduan, etorkizunean euskalkirik ez bada, euskara hil den seinale izango da."



MIKEL LARREATEGI, Klub Deportiboko presidente ohia: "Hau zerbitzu kluba da azkenean, hemen ez dago soldatapeko lanik. Argi dago filosofia kontua dela, baina ez dut uste hori aldatzea komeni zaigunik".

Opillak bedeinkatzera eruan zittuen askok **San Blas** egunian. Santa Ageda goguan, **santaeskian** eta koplak kantatzen ibilli ziran. Arraten **Gerra Zibillaren interpretaziño zentruak** urtebete egin eban. Otsaillaren 15ian hasi ziran 39. Eibarko **Antzerki Jardunaldixak**. Eta otsaillian jakin genduan **Ylenia Baglietto** antzezliak Ercilla sarixa jasoko eba. Piano ikasle gaztiak kontzertua emon eben Coliseuan, 11. Andoaingo **Piano Jaialdixa** baiño lehen. **Juan San Martin** bekari esker eibar.org gaixaren inguruan egindako ikerketa-lana presentau eban Maialen Odriozolak. **UEUK udaberrirako ikastaruak** emon zittuan ezagutzera. Kulturari lotuta albiste tristia jaso genduan, 23an **Marino Plaza** artistia hil zan eta. Lanbide Heziketako ikasliak 165 enpresa proiektu aurkeztu zittuen Untzagan, **Ikasenpresa azokan**. Hillaren 20xan **espetxe guztietara martxak** antolatu zittuen, presuen eskubidien alde. Eibartik lau autobus juan ziran Logroñora. **Suhiltzailliak** be euren lan baldintzen aldeko mobilizaziñoak antolatu zittuen. **Errefuxiatuen aldeko** jarduera eta ekimenak antolatzen segidu eben eta, bestiak beste, gaixaren inguruko erakusketia hartu eban Topalekuak. Bixen bittartian 24 dendak eskintza berezixak egin zittuen **neguko beherapenen azokan**. **Etxeberria diseñadoriak**, barriz, udazken/negurako bere proposamena Mercedes-Benz Fashion Week-eko pasarelan erakutsi eban. Eta zenez-plazan eraikitako pistak inauguratzeko, **Plazan Jokuak** ekimena antolatu eben.



Koko-dantzarixak eta kokomarruak geurera aillegau ziran Kezka Dantza Taldiaren eskutik.



San Blas egunian opillak bedeinkatzera eruan zittuen eibartar askok.



Espetxietara antolatutako martxaren barruan, Eibartik lau autobus juan ziran Logroñora.

IÑAKI REZOLA
HARATEGIA

Urte Berri On!!

Errebal, 23 – Tel. 943 201 729

BOLINTXO
OKINTEGIA
GOZOTEGIA

Eguneroko
ogia



☎ 943 20 40 66 (Errebal, 9) ☎ 943 20 36 06 (Legarre Gain)



ARANTZA LASA, historialaria: "Debabarreneko emakumeak aspalditik daude lanean -IX. mendekoak dira ditugun lehen erreferentziak- eta betidanik izan dute zer kontatu".

EDU ZABALA, idazlea: "Gure arbasoek ez zekiten azaltzen gertatzen ziren fenomeno guzti horiek eta hori guztia ordenatu behar zuten euren osasun mentalari eta beraien munduari nolabaiteko azalpena emateko".

KONTXI GURRUTXAGA, Kaleetan Kantuz-eko zuzendaria: "Orain dela hamar urte Kaleetan Kantuz sortu zenean asmoetako bat Eibarren zegoen kantatzeko ohitura berreskuratzea zen".



Etxe batek sua hartu eban Arragueta kalia eta goitik behera erre zan.



Amañako Berdintasunaren Pasialekua Martxa Lilarekin inauguratu eban Emakumiaren Nazioarteko Egunian.

Martxua ezin okerrago hasi zan Arragueta eta ingurukuendako, hillaren 3an goizian goiz **etxe batek sua hartu** eta goitik behera erre zan eta. Egunian bertan eruan eben **atxilotuta Naroa Ariznabarreta**, 2007xan A-8 autobidia moztu ebala eta, horren inguruko epaiketara agertu ez zalako. **Paella-jan solidarixuarekin** emon eben ezagutzera **AFESD** diagnostiko bariko gaixotasunak dittuen umieri laguntzeko herrixan sortutako alkartia. **Ondo Egindako Lana** ekimenaren 2. saian, **Joan Mari Torrealdai eta Ibarretxe** egon ziran Armerixa Eskolan berbetan. Emakumiaren Nazioarteko Eguna zala eta, **Martxa Lilarekin** inaugurau eben **Berdintasunaren Pasialekua** Amañan. Horrekin batera, udalak eta Eibarko Emakumien Mahaixak programa berezixa antolatu eben. Eta berezixak izan ziran baita **Sostoa** abesbatzaren kontzertu sakroa eta **Kaleetan Kantuz** abesbatzak, 10 urte betetzen zittuala eta, Coliseuan eskindu eban emanaldixa be. Urtero lez, **bertsuak** protagonista izan ziran **Arrate Kultur Elkartean** eta alkarte berak antolatutako **Eguen Zuri argazki lehiaketako** sarixak be martxuan banatu zittuen. **Goi Argi** alkartiak 65 urte bet zittuan San Jose egunian. Beste batzuetan baiño beranduago, martxuaren 18xan onartu eban udalbatzak 33'2 millioiko **udal aurrekontua**, kontrako boto barik.

Larragest



F. Calbeton, 22-24

INMOBILIARIA
690 610 715

ASEGURUAK
943 200 795



JOSE AGUSTIN LARRAÑAGA, artista: "Eibarko Artisten Elkartearen gaur egun 170 bazkide gara. Batzuk sortzaileak dira, beste batzuk arteaz disfrutatzea soilik nahi dute; elkartearen nahi duenarentzat da".



JAVIER GOIKOETXEA, Guztion Onerako Ekonomiaren sustatzailea: "Orain da herritarren ordua. Iraganean Eibar bere burua eraikitzeko gai izan zen bezala, ziur gaude orain ere eibartarrak euren proiektua lantzeko gai izango direla".



ASIER SERRANO, idazlea: "Nik gizakia maite dut, baina ez taldean dagoenean, horrela gero eta gutxiago gustatzen zaizkit. Gizakiok gure konplexuak onartzen ez ditugulako izaten dugu biltzeko beharra".

Eneko Anduezak eta Itoitz-Garcia Antonek ziñegotzi kargua laga eta **Jon Iraola eta Maria Jesus Agirre** sartu ziran euren ordean. **II. Errepublikia** aldarrikatu zala 85 urte bete ziran. **Trikitilari gaztiak Irlandan** egon ziran Aste Santuko oporrak aprobetxautan. **Bertsolaritzak** bete eban hillaren zati handi bat: Plazatik Gaztetxera XV. Bertsolari Gazteen Txapelketia ez eze, Bertso Eskolen Eguna eta Eskolarteko Finala behartu zittuan gure herrixak. Eta **Legarren bertso bazkarixa** antolatu eban jai batzordekuak. **Santiago Arizmendiarrietari eskindutako liburua** eta bidua presentatu zittuan Ego Ibarrek eta **Debabarrenako Orkestra Sinfonikua** kontzertu arrakastatsurekin ekin zetsan bidari, Jose Miguel Laskurainen eskutik. **Asier Serrano** idazliak Xabier Lete poesia sarixa eskuratu eban "Linbotarrak" lanarekin. **Nagusixen XXIII. Hamabostaldixaren** harira azokia egin zan lehen aldiz. Debegezan **Gaztegan eta Enplegu Anezka** ipiñi zittuen martxan. **Liburuaren Naziñoarteko Eguna** ospatu eban Liburutegixak eta, Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpaiñarekin bat eginda, hainbat ekimen antolatu zittuan **Egoaziarekin** batera. **Ekua-dorren lurrikarak** kaltetutakueri laguntzeko dirua batzen ibilli ziran. **Deparkel Parkinson** alkartekuen aldeko pintxopote berezixa egin zan. **Gergori Ayarzaguenak**, barriz, Eibarren hasi eban Nepaleraño bizikletaz juateko bidaia solidarixua. Apirilla agurtu aurretik **Santa Kurutzeko jaixak** hasi ziran eta ordurako hasitta eguazen sanjuanetako danborradetarako entseguak.



Udalbatzak 33'2 millioi euroko aurrekontua onartu eban kontrako iñolako boto barik.



Gaztegan eta Enplegu Anezka ekimenak ipiñi zittuen martxan Debegezan.



II. Errepublikia aldarrikatu zala 85 urte bete ziran, urtero lez, hainbat ekitaldirekin.

www.kolorlan.com

667 54 89 16 (Ritxar)



KOLORLAN
P I N T U R A K

Iker Elorza Beitia

Tel.: 608 30 85 26

e-mail: legalbide@gmail.com



LEGALBIDE

Finka kudeaketa • Aholkularitza juridikoa • Abokatua



BENITO LERTXUNDI,
musikaria: "Kontzientzia argia dut dudan zorteaz jabetzeko. Badakit jendeak nik egindako lana erosten duela eta begirune handia diet horrelako gauzei. Asekaitza naizelakoan nago".



AMAIA ITURRI, Egoaizia:
"Bidezko Merkataritza kontsumitzeko arrazoiak asko dira: naturarekiko zaintza berezia, emakume eta gizonen arteko berdintasuna, produktuak ekologikoak eta kalitate handikoak, umeen esplotazioa eza...".



SUKAINA BENSLAIMAN KRAICHI, Gizarte Langintzako ikaslea: "Gu etorkinen bigarren belaunaldikoak izan arren eta hemen jaiokoak, ez gaituzte bertakotzat aitortzen. Beti ikusten gaituzte etorkin gisa".



Esperientzia Eskolako 12. ediziñuak ikasturte betia amaittu eban Armerixa Eskolako ekitaldixan.



Memoriaren Plaza ekimena ekarri eban Gogora Bizikidetzak eta Giza Eskubidien Institutuak.



Tantanez Tantan-en bosgarren ediziñuak jendetza batu eban zapatu berotsuan.

Maiatzaren Lehelenguaren harira mobilizaziño diferentia antolatu zittuen sindikatuak. Azken urtiotako martxan LAB-ek Eibarren egin zittuan ekitaldi politikua eta bazkarixa eta ELA, UGT eta CCOO-k, barriz, hiriburuetan. Udabarrixarekin batera jai girusa zabaltzen jua zan. Bestiak beste **San Isidro, Abontzako eta Galiziako jaixak** ospatu genduazen. Eibarko Klub Deportibokuen agendia be bete-beta egon zan, **Argazkilaritza Maiatzian eta Euskal Jaixa** tartian. Eskolarteko antzerki **erakustaldixak** 32 urte bete zittuan eta 21ian egindako **Tantanez Tantan-en** 5. ediziñuak jendetza batu eban. Maiatzaren 18xan **Museuen Eguna** ospatu zan. **Astixa taldiak 25 urte** bete zittuan eta Indianokua gaztelekuak bost. Ikasturtian ikasittakua erakutsi eban **umien bertso jaialdixetan**. Kursua agurtu baiño lehen **Eskolako Agenda 21eko** plenua egin zan, bederatzi ikastetxetako 80 bat ikaslerekin. **Esperientzia Eskolako 12. ediziñuak** be ikasturtia agurtu eban. **Eskualdeko nagusixak** sasoi betian daguzela erakutsi eban gurian egindako topaketan. **44. udako ikastaruetarako** matrikulaziñua zabaldu zan. Eta **Gogora Bizikidetzaren eta Giza Eskubidien Institutuaren** eskutik, **Untzagak Memoriaren Plaza ekimena** hartu eban.

MUGIKA Urkizu, 18
943120194
HARATEGIA
URTE BERRI ON!



OSKAR ESTANGA, bertsolaria eta musikaria: "Dibertitzeko gorputzari kriston pasadak ematen dizkiogu, bertsotan askotan besteen errespetuari faltatzen diogu umorea egiteko"



IDURRE ALBIZU, BN Armagin-eko koordinatzailea: "Eskuzabalak diran kideak interesatzen zaizkigu, eurak zeozer jasotzeaz gain besteeri zeozer emateko prest daudenak".



CARMEN SARASUA, Esperientzia Eskolako 12. promozioakoa: "Eskolak guri mordoia eman digu eta jaso dugun hori beste batzuekin partekatzea tokatzen zaigu orain guri".


Gure Esku Dago-ren eskutik 1.500 kandela ixotu ziran Untzagan 4an. Uda gerturazten jua ahala jaixak be ugaritzen juaten dira beti: ekaiñeko lehelenguak **Urkikuak** izan ziran, baiña atzetik beste batzuk etorri ziran: **sanjuanak**; hórretxen inguruan Rugby taldekuak antolatzen daben **Garagardo Jaixa**; Karmen kaleko parkian Beheko Tokiren eskutik ospatzen diran **sanpedruak**; Kezka dantza taldeko ikasliak urtero ikasturtia agurtzeko egitten daben **Dantzari Eguna**... Aurten herritik kanpora, Mallabian **Adolfo Jainaga** soiñujole eta maixuari omenaldixa egin zetsen hango Nekazaritza eta Artisautza Azokan, klasiak emoten hasi zala 25 urte betetzian. Kurso amaieraren aitzakixarekin, **EHUko Humanidade ikasle ohien** talde bat Eibarrera bisitan etorri zan Donostitik. Eta unibersidadera sartzekuak ziran ikasliak aurten azken aldiz egin dan **selektibidaderako** preparatzen jardun eben. Oporrak hartu baiño lehen, ikasturteko azken kantu-kalejira egin eben **Kaleetan Kantuz** abesbatzak eta J.B. Gisasola **Musika Eskolako** trikitilarixak. Itzamna poesia taillarrekuak be, urtero lez, Ibarkurutzen **poesia eta musika gabarekin** esan zetsen agur ikasturtiari. **Atzegi**kuak Debabarrenako famelixekin topaketa egin eben. Eta beste topaketa bat antolatu zan uda osuan Museuan ikusgai egon zan "**Makina eskua da**", Ibon Aranberriren erakusketa-aren inguruan. Udako beruari hobeto aurre egitteko hillaren 11n zabaldu eben **kanpoko igerilekua**. Eta sanjuanekin batera egin ziran bigarrenez Espaiñiako Kongresu eta Senaturako **hauteskundiak**: aurreko urteko abenduan egindakuen bidetik jua ziran emaitzak.



Gure Esku Dago-ren eskutik Untzagako zati bat 1.500 kandlekin argiztu zebeñ hillaren 4an.



Agifes-ek lokal barrixa zabaldu eban Urkizun buruko gaixotasuna dakenei laguntzen jarraitzeko.



Sanjuanetan sonbrillendako tartia be egon zan, batez be kuadrillen arteko bazkarixan.

Ibarkurutze, 5 - 943 20 37 15

Karlos 

SUKALDEAK

AZALEA Edergintza

M^a Carmen Bereziartua

Trenbide Kalea, 3 zkia. behea - 20870 ELGOIBAR

Tel.: 943 740 310

Gorputz eta aurpegi estetika

Abian dagoen negozioa alokatzen da, erretiroa dela eta.



IRATI ICIAR, UEUko koordinatzailea: "UEU elkarte bat da, 1.200 bazkide ditu jakintza arloetan antolatuta. Benetan altxor bat da UEUren inguruan aditu eta profesionalen atxikimendua izatea".

IRATXE GIMENEZ, idazlea: "Ez da ohikoa helduentzako eta umeentzako ipuinak liburu batean nahastea, eta nahiz eta jakin oso komertziala ez dela, horrela egitea erabaki dut".

GORKA CASTRILLO, argazkilaria: "Neure familiako argazkiak birfotografiatzen hasi nintzen eta, horretarako, argazkiak egin ziren tokietara bueltatu nintzen".

Atzian lagatako hillaia jaixekin beteta egonda be, julixuan parrandarekin segidu nahi ebenak horretarako nahi bezin beste aukera euki eben: Iruñera jua barik be **Astixarekin Afariket**an dabizen umiak ospatzen dittuen **sanfermiñak**, **Amañako jaixak** sekula baiño lehenago, hillaren lehelengo egunarekin batera aillegau ziran, jarraixan ospatu ziran **Sankristobalگو jaixak eta Lambretta** motorren konzentraziñua... Udalbatzak onartutako **terrazen inguruko ordenanzari** zuzenketak egittek epia itxi eta jarraixan sartu zan indarrian araudi barrixa. **Euskal Herriko Gazte Orkestrak**uak udarako kontzertuak Hezkuntza Esparruan prestatzen ibilli ziran. Markeskua jauregixak Udako Euskal Unibertsidadiak antolatutako **44. udako ikastaruak** hartu zittuan. Arrate Kultur Elkartearen eskutik **Ikus-entzunezkuen Asteak** 26. ediziñua bete eban, San Andres elizako klaustrian hainbat proiekiño eskinduta. Eibar Merkataritza Gune Irekiaren eskutik **udako merkealdi** berezixa hartu eban Toribio Etxebarria kaliak. Obren atalian, **Eibarko Bizikleta Plazia** konpontzeko biharrak hasi zittuen eta Arrate eta Elgetako parkietan parrilla barrixak. Julixuaren 28xan banatu zittuen 26. **Toribio Etxebarria Sarixak**. Udarako irteera eskintza zabala preparau eben Euskal Kostaldeko **Geoparkian**. Eta uda solidarixo izateko aprobetxau eben askok: **Chernobilen Lagunak GKE**-rekin zein Eibar Sahara Elkartiarekin ume batzuk hamengo famelixekin pasau zittuen oporrak. Eta jakinmin haundixarekin zabaldu zittuan atiak **Mercadonak** abuztuaren 31n.



Kezkako Dantza Taldekuak Suitzara jua ziran, eta baita dantzan egin be hango lurretan.



Udako merkealdi berezixa antolatu eben beste behin Toribio Etxebarria kalia.



Eibarko Bizikleta Plazia konpontzeko biharrak egin dira aurten.



Errebal, 23
frupi
 943 096 885
 Kalitate gorena
 prezio onenean
 PRODUKTU EKOLOGIKOAK



EIBARKO KIROL SARIEN XXII. edizioa

Etzi, zapatua, abenduaren 31n, ...eta kitto! astekariak antolatzen duen Eibarko Kirol Sarien edizio berri batek bere hitzordua izango du Eibarko kirol munduarekin. Hogeitabigarrena izango da oraingokoa. Coliseoan, eguerdiko 12.00etan hasiko den ekitaldian, kirol-modalitate bakoitzean izendatutako kirolariek euren saria jasoko dute; modalitateei dagokienez, 24 sari banatuko dira eta, horiez gain, sustapen saria, euskarakoa eta ohiko sari berezia izango dira, 25 urte betetzeagatik Eibartarrak-i emango zaionarekin batera. Guztira, beraz, 28. Lerrootatik, eibartarroi ekitaldira joateko gonbitea egiteaz gain, parte hartu duten kirol talde guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Zorionak irabazleei! Eta baita gure herriko kirol-taldeei ere, urte guztian egiten duten lanarengatik.

SARI BEREZIA



Markel Alberdi

Bidasoa XXI

ARETO-FOBALLA



Jose Julio Arregi

Debarrena Areto-Foballa


ATLETISMOA



Jone De Castro

Eibarko Klub Deportiboa

AUTOMOBILISMOA



Jesus Mª De la Fuente

Escuderia Eibar

ERRUGBIA



Aitor Elkoro

Eibar Rugbi Taldea

ESKIA



Arrate Zamakola

Eibarko Klub Deportiboa

ESKUBALOIA



Alejandro De Diego

Eibar Eskubaloia


FOBALLA



Fran Garagarza

Eibar Kirol Elkarte

GIMNASIA ERRITMIKOA



Irati Yarza

Ipurua Gimnasia Erritmikoa

GOLFA



Esteban Ipiña

Eibar Golf Pitch & Putt

HERRI KIROLAK



Hodei Ezpeleta

Eibarko Euskal Jokoak

HIRU TXIRLO



Bittor Rodriguez

Asola Berri

IGERIKETA



Egoitz Blanco

Urbat-Urkotrik

abenduak 31, zapatua, 12.00etan, COLISEOAN

JUDOA



Josu Olmos

Judo Kalamua

MENDIA



Eskola-Irteeretako arduradunak

Eibarko Klub Deportiboa

PILOTA



Enrike Simon

Eibarko Klub Deportiboa

SASKIBALOA



Mikel Ibarzabal

Katu Kale

SILBESTRISMOA



Mª Asun Nogues

Eibarko Txori Lagunak


SQUASH



Josu Gallastegi

Eibarko Klub Deportiboa

TENISA



Ruben Pinillos

40-15 Tenis Kluba

TIRO OLINPIKOA



Iñaki Martin

Club Tiro Dinbi-Danba

TRIATLOIA



Roberto Gartzia

Delteco Eibar Triatloi Taldea

TXIRRINDULARITZA



Victor Cordon

Eibar Energia Dehabarrena

WATERPOLOA



Eneko eta Jon Treviño

Urbat-Urkotronik

WU-SHU



Sulei Samadi

Ttatt Gimnasioa

SUSTAPENA



Avia

25 URTE



Ebartarrak FT

EUSKERA SARIA



Igor Amorrosta

Eibarko Klub Deportiboa



LEIRE GANDIAGA, kooperantea: "Quechuan bakarrik hiru bokal dituzte eta gauza asko ez dituzte ondo ahoskatzen. Proiektuarekin poemak errezitatu egiten dituzte, quechuaz eta gaztelaniaz".



IMANOL MAGRO, Berria-ko kazetaria: "Brasilgo joko olinpikoetan, kirola ahaztu barik, arlo soziala asko landu genuen, horko gaiak dosifikatuz: bortizkeria poliziala, parke olinpikoa egiteko faveletatik botatakoak, genero ikuspegitik dituzten arazoak..."



JUAN PALACIOS: "Zinemaldian lortutako sariak nigan gehiago sinesteko balioko dit eta, zer esanik ez, baita denbora irabazteko eta baldintza hobekoetan lan egiteko ere. Diru barik hasi nintzen istorio honetan eta orain ate batzuk irekiko zaizkidalakoan nago".

Eibarko musikia, dantzak eta bestelak hamendik kanpora erakutsi zittuen beste batzuek eta oportetarik bueltan euki genduan holakuen barri: abuztuaren 12tik 14ra bittartian **Allarizen Euskadi-Galizia jardunaldixak** egin ziran eta, horren aurretik, hango musika bandakua Eibarren eta Ermuan jotzen ibilli ziran. **Kezkako dantzariak** Zuricheko folklore jaialdixan hartu eben parte eta **Eibarko danborradako** ordezkariak Zumarragako jaixetan. Aurten **Arrateko jaixak** eurixa ekarri zeskuen eta Arrateko Amaren eguna pasauta be, jaixak segidu eban: Kofradixa eta Basarritar jubilaueguna, **Arrate izenekuak** urtero egitten dabena, **Barrena, Legarre eta Wenzeslao Orbea kalietakuak, Agiñagako sanmiguelak...** Erritmua hartu ezinda bueltau bihar izan zan bat baiño gehixago betiko zeregiñetara, tartian ikasturtia hasi eben **5.228 ikasliak**. Bestela, oso indartsu ekin zetsen ikasturtiari Portaleko erakusketarekuan, **Jose Zugasti** eibartareren "Biharra, arimakoa" izenburukua inauguratuta. Eta Untzagan egin zan **Energixa Barriztagarrixen azokiak** gaixari gerturatzeko primerako aukeria eskindu zeskun. Eta ikasturte barrixa hasi eta segiduan, irailaren 25ian atzera be **hauteskundiak** deittu zittuen, oinguan **Eusko Jaurlaritzarako**. Gurian EAJ-PNV izan zan nagusi, askorengaittik: 4.223 boturekin, 1.325 botuko aldia etera zetsan EH-Bilduri, 1.439-kua PSE-EEri eta 2.537-kua Po-demos-i.




Arrateko jaixetan, eguraldixaren beldur, Amabirjiñaren irudixak buelta motzagua egin zeban aurten.



Energixa berriztagarrixen azokiak gaixari gerturatzeko aukeria eskindu zeskun.



Sagardo Egunak urteroko hitzorduari heldu zetsan eta Untzaga jendez bete eban.



JOSE VICENTE PEROSANZ
M^a LUISA SOROA
MARTA VALERA
IRATXE URIBEZUBIA

TEL. 943 204 194
FAXA. 943 820 006

Urtzaile, 1 EIBAR egurenyasociados@gmail.com



- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta
ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97

publi.resa@euskalnet.net



KARMELO AYESTA, euskaltzalea: "Oraindik aurreiritzi eta gizarte-arau inplizitu asko aldatu behar dira euskararen erabilera normalizatzeko. Hizkuntza gutxituen hiztunok barneratuta ditugu hizkuntza-jokabide anormalak".



AITOR GOROSABEL, Su ta Gar: "Diskoaren goiburua horretan ere gure izaera isladatzen da. 28 urte eta gero, nahiz eta gure lanarekin, sormenarekin gorabeherak izan, zorionez pasioz egiten dugun lana da".



NEREA DEL CAMPO, Gure Balioak 2016 sariduna: "Gure herrian urtero izaten dira indarkeria matxistari lotutako salaketak eta horren biktimei laguntzeko eratu genuen elkarte. Harrezkero emakume asko etorri zaizkigu informazio eta laguntza eske".



Egoizia eta Alboan erakundiak Aldatzenekin alkarlanian antolatutako bazkari solidariuak 320 lagun batu zittuan.




Gaztaren Debabarreneko I. Astiak artaldia ekarri zeban herriko kalietaraiño.



Atzegik "KaleAtzegizale" sensibilizaziño kanpaiña aurkeztu eban.

Urriaren 1ian Nagusixen Eguna dala eta, herriko jubilauek pensioño duiñen alde alkarrataratzia egin eben. **Sagardo Egunian** 2.000 litro sagardo baiño gehixago edan ziran eta **Egoizia eta Alboan** erakundiak Aldatzenekin alkarlanian antolatutako **bazkarixak** 320 lagun batu zittuan. Arlo kulturalian, **UEUren Udazkeneko Ikastaruak**, Untzagan egindako **Liburu eta Disko Azokia**, udaletxian presentau eben **Eibartarren Ahotan** zaharberriua eta beste hainbat euki genduazen. **Juan Palacios** eibartarraren "Pedalo" lehen film luziak, barriz, Irizar sarixa jaso eban Donostiako Zinemaldixan. Deporreko mendi taldekuak **Jardunaldi Mikologikuak** antolatu zittuen. Urkizun egitten dan **Azoka Ekologikuak** 5. ediziñua bete eban eta **Gaztaren Debabarreneko I. Astiak**, bestiak beste, **artaldia herriko kalietaraiño** ekarri zeskun. Gipuzkoako odol-emotailien alkartiaren urteroko hitzorduan hainbat lagun omendu zittuen, tartian 100 donaziñora aillegau zan Fernando Bolinaga. Hillaren 10a **Buru Osasunaren Nazioarteko Eguna** zala eta, aurten Urkizun lokala zabaldu dabon **Agifes alkartiak** ate irekixen **jardunaldixak** antolatu zittuan. Gripiaren kontrako txertaketa hasi zan eta **Atzegik sensibilizaziño kanpaiña** aurkeztu eban. Eta 1973tik 1977ra bittartian Eibarko alkate izan zan **Antxon Iraolagoitia** hillaren 21ian hil zan, 91 urterekin.



Zorionak eta Urte Berri On gure bezero guztiei

Tfnoa. 943 20 22 39
Mobila. 617 16 33 82
 egolan.eibar@gmail.com

AHOLKULARITZA eta GESTIOA

EGOLAN

Julian Etxeberria 7, 7.-C





IDOIA ARGOITIA, euskara planaren koordinatzailea:
 "Udalak badauka bere ardura, baina asmoa herritarren partaidetza ahalik eta zabalena izatea litzateke, hori lortu nahi dugu".



ZALOA URAIN, Kokein:
 "Guk asko disfrutatzen dugu eszena- toki gainean, ezin da momentu horietan sentitzen duzuna hitzekin adierazi eta oso pozik gaude diskoa gure herrian estreinatzeko aukera izan dugulako".



MARI KARMEN ETXEBARRIA, Sostoa Abesbatza: "Zelan beteko dut Sostoaeren hutsunea? Ez da bakarrik kantatzearen kontua, jendearekin egin ditudan harremanak dira. 32 urte dira, astean bi bider..."

Domusantu Egunak hasi eban azarua betiko lez. Eta urteroko moduan As Burgas Galiziako Etxiak **Magosto eta Enpanada Jaixa** ospatu zittuan; handik egun gitxira ospatu genduan **Gaztaiferre**. Plano Corto alkartiaren eskutik **Asier Errasti ikus-entzunezkuen jaialdixa** eta Javier Agirresarobe Sarixak euki genduaz. Azaruaren 13tik 20ra egin zan **XXIV. Musikaldi-xak** emanaldi oso berezixak ekarri zeskuzen, tartian Musika Eskoliak eta Eibarko Cielito Musika Bandakuak estrenau eben **"Forjarien kanta"** musikal arrakastatsua. **La Novena** taldekuak be antzezlan musikal barrixa aurkeztu eben. **Pirritx, Porrotx eta Marimotots** be etorri jakuzen "Tipi-Tapa Korrika" ikuskizun barrixarekin. **Santa Zezilia** ospatu eben musikuak. Eibarren lehen aldiz hartu dabe parte **kalian lo egitten dabenen** inguruko datu-bilketan: udaleko Gizartekintza eta Inmigraziño saillak 22 boluntariorekin talde anitza osatzia lortu eban. Eta **Bizilagunak** ekimeneko bazkarixetan, jatorri eta kultura diferentia zeken 35 lagun batu ziran gurian. **Indarkerixa matxistaren kontrako egunaren** harira banatu zittuen Eibar **Beldur Barik** sarixak. **Nalua**-ko gazte feministak, herrixan ez eze, EAE mailan be saritu zittuen. Eta andrazkuen alde egindako biharrarengaittik jaso eban **Gure Balioak Sarixa Nerea del Campo** eibartarrak. **Ibon Muñoaren aldeko kanpaiñari** ekin zetsan Eibarko Sarek. Eta **sanandresak** ate joka eguzela jua zan **Juan Mari Narbaiza** bertolarixa.



Bizilagunak ekimeneko bazkarixetan hainbat jatorri eta kulturetako lagun batu ziran.



Ibon Muñoaren aldeko kanpaiñari ekin zetsan Eibarko Sarek.



Sanandresak eguraldixa lagun izan zebe eta dantzaren egiteko tartia be izan zan.




Afiliala
www.ccoo-euskadi.net
CCOO
 euskadiko langile komisioak
CCOO-ek Euskadin elkarriketa sozialaren eta negoziazio kolektiboaren alde egiten du
 Ifar kale, 1 Tel. eta faxa. 943 20 84 35 eibar@euskadi.ccoo.es



JOSE VALDERREY, argazkilaria:
 "2012ko urtarrilaren 27an enkante batean erosi genuen dagerrotipoa 1845. urtearen inguruan ateratakoa izan daiteke, Luis Daguerrek teknika hori asmatu eta handik sei urtera. Toledoren irudia erakusten du".

IRAIA MUÑOA, ikertzailea:
 "Orain badakigu gure bizi-ohiturek eragindako aldaketa epigenetikoak ere gaixotasun askoren sortzaile direla. Aldaketa epigenetiko hauek, gainera, belaunaldiz belaunaldi pasa daitezke".


JAVIER AGIRRESAROBE, argazkilaritza-zuzendaria:
 "Orokorrean casting batera aurkeztu behar izaten naiz eta beste batzurekin lehiatu. Ez zaizkit hainbeste lan ere heltzen; agentea dut horretarako eta Skype bitartez moldatzen gara!".



Erabaki Biot ekimenak erabagitzeko eskubidiaren aldeko 1.500 siñadura batzeko kanpaina zabaldu dau herrixan.



Diapo Lete Senegaldarrak Eibarren alkatetuek Etorikiñen Nazioarteko Eguna ospatzen.



Sahararen aldeko urteko azken liburu azoka egin dabe hillabete honetan.

Gabonak gerturatzen eguzela iragaritzeko, abendua ailegau baiño egun batzuk aurretik ixotu zittuen **kaliak apaintzeko argixak**. Aurten "Euskeriaren lorategixa" eginda ospatu genduan **Euskararen Eguna**. Museuak, barriz, **Santa Barbara** ospatu eban eta Ubitxa kalian dagan **Biharrian** sormenerako guñiak atiak zabaldu zittuala urtebete bete zan. Askoz "zaharragua" da 100 urte bete dittuan **"Casa del Pueblo"**: mendeurrena ospatzeko erretratu zahar eta bestelakuekin erakusketia zabaldu eban Eibarko Sozialistak. **Nagusilan** boluntarixuen alkartia sortu zala 20 urte bete dira eta, horren aitzakixarekin, udalak egitten dabon biharraren inguruko aitortza egin zetsen. **Durangoko Azokia** iñoiz baiño goiztiarragua izan da aurten, baiña edozelan be eibartarrak ez eban kale egin eta modu batian edo bestian parte hartzen egon ziran. Hiru mural margotu zittuen Txontan **DSS2016 egitasmuaren** harira antolatu eban jardunaldi kulturalian. **Mikel Rodriguez Alberdi eta Maria de Jesusek** "Maitasunaren indarra" lana presentatu eban Gaztezulok antolatutako bideo lehiaketara eta publikuaren sari-xa jaso eban. Abenduaren 18xan **Etorikiñen Nazioarteko Eguna** zala eta, aurten sortu dabon **Diapo Lete Senegaldarrak Eibarren** alkatetuek Senegal eta Euskal Herrixa batzeko jaialdixa antolatu eban Untzagan. **Erabaki Biot** ekimenak erabagitzeko eskubidiaren aldeko 1.500 siñadura batzeko kanpaina hasi eban. Eta aurten be egun argiz egin dan **Olentzeroren kalejirak** jendetza batu eban.

GAUR
 ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ETA
 KONPONKETA
 ELEKTRIKOAK

ATEZAIN
 AUTOMATIKOAK ETA
 BIDEO-ATEZAINAK

Zuloagatarren 9, behea
 Telefonoa 943 20 62 40

carmen@egaur.com
 Faxe 943 05 69 23

Laguntza Teknikorako
 Zerbitzu Ofiziala

EIBARSAT

Elektrodomestiko txikien mikrouhinen konponketa, musika kateak, sukaldeko menajea, elektrodomestiko txikien piezak, eta abar...

IFAR KALE 8
 Tel. eta Faxe. 943 20 67 17
 20600 EIBAR

Dendariak eta Ostalariak Berbetan egitasmoaren barruan hainbat jarduerak egin dira 2016an, *Euskeraz primeran!* kanpainaren barruan: "II Gilda Lehiaketa", "Gin-Tonic lehiaketa", "Kafe-latte ikastaroa", "Eskaparateak apaintzeko modu errazak tailerra". Bestalde, **Guraso Berbalagunekin** eta euren seme-alabekin hainbat irteera antolatu ditu ...eta kitto! Euskara Elkarteak, eta guraso zein seme-alabek primeran pasatu dute "Barixakuan Jolasian" programaren harira antolatutako jarduerak eta tailer desberdinak.

Berbetan mintzapraktika egitasmoan 22 taldek jardun dute astero-astero euskara praktikatzeko, eta irteera desberdinak egin dituzte: Zumaiako Flyscha, Atarrabia...

Urtarrilaren hasieran Hizkuntza Politikaren sailburuordeak abiatu zuen "**Euskararen Txantxangorria**" kanpainarekin bat egin zuen Eibarko Udalak, modu honetan "*herritarrei udalaxean euskeraz egiteko gonbidapen atsegina, hurbila eta eragargarria eginez*".

Udal Euskaltegiak eta AEK-k, udalarekin elkarlanean, **euskarazko piroporik onena** aukeratzeko lehiaketa antolatu zuten urte hasieran. Epai-mahiak 45 piroporen artean Iñaki Serranoren "*Zu ikustean, hego haizea sartzen zait, eta iparra galitzen dut*" saritu zuten.

Eibarko Merkataritza Gune Irekiak antolatutako neguko beharpenetan egon zen ...eta kitto! Euskara Elkarteak *Euskeraz Primeran!* kanpainarekin, herritarrek **erosketak egiterakoan** ere **euskara erabiltzera** animatzeko. Uztailako Factoring-ean "photocalla" jarri zuten ...eta kitto!-k, eta argazkia egin zuten guztien artean zozketatu zuten Eibarko Merkataritza Gune Irekiak emandako erosketa-txartela.

2015-2016 ikasturtean Urkiko **Arrateko Andra Mari** ikastetxeko guraso talde batek eskolan bertan euskara ikasten jardun zuen, Elizabeth Lema irakaslearekin laguntzarekin. Ekimen horren arrakasta ikusita, urrian Udalak eta euskaltegi biek (AEK eta Udal Euskaltegia), ikastetxeekin lankidetzan, "**Gurasoak ere eskolara**" kanpaina jarri zuten martxan. Horrela, 150 guraso baino gehiago animatu dira euskera ikastera.

Badihardugu Elkarteak gazteen ahotsa jaso eta zabaltzeko asmoz aisialdira bideratutako proiektua abiarazi zuten martxoan: "Gazte Gara Gazte".

Apirilean, **XI. Gipuzkoako Bertso Eskolen Eguna** eta **XXXVI. Eskolarteko finala** hartu zituzten gure herriak. Ekitaldiaren harira Gipuzkoa osoko 300 bat ume eta begirale elkartu ziren.



BERBETAN programaren barruan antolatutako San Blas opilen tailerren talde polita elkartu zen.



"2016an ere euskara helburu" urte osorako egitarua aurkeztu zuten ...eta kitto!ko eta udaleko ordezkariak.



Tabernetan euskararen erabilera areagotzeko I. **GIN TONIC LEHIAKETA** antolatu zen.



ARRATEKO ANDRA MARI ikastetxeko guraso talde batek gogor jardun zuen euskara ikasten. Ekimen hau herriko beste ikastetxeetara zabaldu zen irailean.



Euskarak denon konpromisoa behar duela azpimarratu zen Euskararen Transmisioaren Mintegian.



Giro ezinhobean igaro zen euskararen olatua gure herriko kaleetatik **TANTANEZ TANTAN** ekitaldian.



UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAK 30 ikastaro eta jardunaldi antolatu zituen udako ikastaroen baitan.



Berbetan Orokorra, Gurasoak Berbetan, eta Dendariak eta Ostalariak Berbetan egitasmoetaz gain, berrikuntza bezala, **ONGI ETORRI BERBETANERA** harrera eta elkarbizitzarako egitasmoa aurkeztu zen irailean.



Udaleko Euskara Batzordeko kideek Euskararen Plan Estrategiko berria aurkeztu zuten.



Lore artean ospatu zen 2016ko Euskararen eguna.

Parte-hartzaile ugari eta askotarikoak izan ziren maiatzaren 3an Portalean izan zen **Euskararen Transmisioari buruzko Mintegiaren** 6. edizioan, eta konpromisoa, grina, integrazioa, ikuspegi estrategikoa eta motibazioa bezalako hitzak azpimarratu ziren.

Maiatzaren 21ean, Urkusutik Untzagaraino, euskararen aldeko olatua osatzea lortu zuten **Tantanez Tantan** edo **Gantxilaren Eguna** moduan ezagutzen dugun ekitaldian parte hartu zuten guztiek.

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU), "Anitza" goiburuari jarraituta, 30 ikastaro eta jardunaldi antolatu zituen, gai, pertsona, toki, ezagutza eta adin guztietara zabaldua. Horietatik erdia baino gehiago Eibarren egin ziren.

Udalak harrera linguistikoa lantzen duen **AISA** programa ipini zuen martxan irailean udal euskaltegiaren bitartez, 15 emakume marrokiar euskarara eta euskal kulturara hurbiltzeko.

Urriaren erdikaldean, udaletxeko pleno aretoan eman zitzaion hasiera **Berbetan** ikasturteari. Berbetan Orokorra, Gurasoak Berbetan eta Dendariak eta Ostalariak Berbetan euskara praktikatzeko talde edo gunez gain, **Ongi etorri Berbetanera** harrera eta elkarbizitzarako programa ere aurkeztu zen.

Urriaren amaieran udaletxean egindako bilkuran, Eibarko Udalbatzak aho batez onartu zuen datozen hamar urteetan indarrean izango den **Euskararen Plan Estrategiko** berria. Aste batzuk geroago **Euskararen Foroa** aurkeztu zen Portalean: "bertan aipatutako plan horrekin neurri baten ala bestean bat egiten duten maila desberdineko kideak bilduko dira, maila pertsonalean edota elkarte edo erakunde baten ordezkari gisa parte hartzeko".

Udalera jotzen duten herritarrak euskera erabiltzera gonbidatzeko asmoarekin, Euskara Sailak **"Udalarekin euskara? Erregular!"** kanpaina jarri zuen martxan azaroan.

Azaroaren amaieran Ego Ibarra Batzordeak 1999. urtean sortu zuen **"Eibartarren Ahotan"** online proiektuan hainbat hobekuntza eta berrikuntza aurkeztu zituen, "Eibarko memoriaren, historia hurbilaren eta ondare kulturalaren berreskurapenean beste pauso bat emanez".

Lore artean ospatu dugu aurtengo **Euskararen Eguna**. "Euskeria erein, zaindu, emon" izan da aurtengo goiburua eta horrekin lorez betetako horma-irudia egin da.

Sarrionandiari aurpegia gaurkotu genion urtea

Grabazio uhinak atzemanda, Einsteinek orain dela ehun urte zehazturiko **Erlatibitatearen Teoria** berretsi duten urte honetan gaurkotu diogu aurpegia Habanako Unibertsitatean euskal kulturaren irakasle izendatu duten **Joseba Sarrionandiari**, 31 urteren ostean berriro jendaurrean agertu denean. Handik etorri zaigu **Fidel Castro** XX. mendeko azken iraultzailearen heriotzaren berri ere. Eta Sahara librearen alde bizi osoa egin eta gero, sorterrri liberrik gabe hil zen **Mohamed Abdelaziz** SEADeko presidentea ere. Aurten joan zaizkiguneren artean, musika arloko izen handiak badira: **David Bowie** "Irudimen salbaia", **Prince**, **George Michael**... **Leonard Cohen** poeta eta kantari laudatua Nobel Saririk gabe joan zen... Eta **Bob Dylan**i eman zioten Literaturako Nobel hori, lehen aldiz kantari eta musikari bati. **Umberto Eco** pentsalari eta semiotiko italiarrak ere laga gintuen. Etxetik gertuago agur esan diegu belaunaldi berriei musika eman zien **Imanol Urbietari**, **Juan Zelaia** enpresaburu eta euskal kulturaren sustatzaileari, **Fernando Larrukert** zinemagile eta argazkilariari eta **Kontxu Odriozola** aktoreari. Bestalde, desagertu eta 28 hilabete geroago aurkitu zuten Anbereseko Eskalda ibaian **Hodei Egiluzeren** gorpua.

Mundu zabalera jauzi eginez, gauzak ez doaz bide onenetik: 160.000 **iheslari** hartuko zituela esan, baina 1.500 baino ez ditu babestu Europak, milioitik gora eskari jasota; 2.300 migra-

tzaile atera zituzten **Calaistik** eta iheslariak **Greziatik Turkiara** egotzi dituzte. Bestalde, lau urteko borrokaren ondoren, amaitu zen **Alepoko** bataila, talde armatu islamistek hiria lagatzea onartu eta gero, eta **Ebolaren** izurritea amaitutzat eman zuten, 11.300 hildako eragin ondoren. **Kubaren** bahimendua kentzearen alde lanean jarraituko zuela ziurtatu zuen Obamak Habanan, baina **Trumpen** amets amerikarra nagusitu da AEB-etan. **Bake ofiziala** sinatu zuten Habanan Santos **Kolonbiako** presidentea eta Timoxenko FARC-EPren buruak, su-etena eta armak uzteko prozesua finkatuta; erreferendumean, baina, kolonbiarrek baztertu egin zuten bake itun hori. **Roussel Brasilgo presidentea** kargugabetu zuen Senatuaren bozketak. Europako Batasuna lagatzea erabaki zuten britainiarrek eta baita lurrikara eragin ere **Brexit**-arekin. **Estatu kolpea** bertan behera geratu eta gero, garbiketa hasi zuen Erdoganez **Turkian**. Independentziarako alde bakarreko bidea hastea erabaki zuen **Kataluniak** eta ildo beretik jarraitzeko moduan zaharberritu zuen gobernua **Rajoyk**, etenik gabeko hauteskunde kanpaina baten ondoren. Eta **ihadismoari** lotutako atentatuei dagokiernez, kamioilari batek **Nizan** 84 pertsona hil eta 202 zauritu zituen, **Bruselan** 34 pertsona hil eta 200 inguru zauritu zituen atentatua izan zen eta orain dela egun batzuk **Berlinen** egin dute azkena.



Niagara urjauziak.



Artaldea Errumanian.



Piton de la Fournaise sumendia, Reunion uhartean.




Copacabana, Brasilgo Rion.



Eski lasterketa Errusiako Ashan.



Eskalada haitzean AEBko Moab-en.



Cable Beach-eko hondartza, Australian.

Gertukoen gauzei helduta, **Eurovisionek** barkamena eskatu bazuen ere, **ikurrina** ezin izan zen erakutsi ekitaldi horretan. **Donostia Europako kultur hiriburua** argi-itzalekin amaitu zen, tartean euskal preso batzuek artelanak zentsuratuta, biktima batzuk minduta senti zitezkeelakoan. **Hamar metroko olatuek** hainkada egin zioten itsasertzari eta 176 familiek etxea laga behar izan zuten **Ondarroan**, luizi batengatik. Historiaurreko "santutegi handi bat" aurkitu zuten Berriatuko **Atxurra koban** eta, bestalde, **elizak beretzat** hartutako 525 ondasun gehiago aterra ziren argira. **Langabeziak** behera egin badu ere, gauza bera gertatu da afiliatu kopuruarekin. **Zumarragako Arcelorren** zati bat ixtea erabaki zuten, Sestaoren ostean; Carrefourri 36 hipermerkatu salduta, zorra kitatzeko 205 milioi lortu zituen **Eroskik**; eta **hondakinak** tratatzea 770 milioi euro kostatuko zaio GHKri

35 urtez. EAJk argi irabazi zuen hiru probintzietan **Eusko Jaurlaritzak** osatzeko **hauteskundeetan** eta EH Bilduk bigarren lekuari eutsi zion, Arnaldo **Otegi**k Logroñoeko kartzela laga eta inabilitazioaren ondoren. Naroa Ariznabarretaren atxiloketaren argazkiak zabaltzeagatik zigortu zuten **Argiako kazetari** bat, Europak zortzigarrenez zigortu zuen Espainia **torturak ez ikertzeagatik** eta **ETAren armak** deuseztatzeko beste ekinaldi baten aurka jo zuen Poliziak. Jaurlaritzak eskolei esan zien ez jartzeko eragozpenik **buruan zapia** daramaten neskei eta **PISAREN emaitzek** kezka eragin zuten EAEko hezkuntza sisteman. **Nafarroan** ere izan zen mugimendurik: **D ereduak** atea zabaldu zuten Nafarroako eskola publiko guztietan, **abortuak egiten hasi** ziren Nafarroako sare publikoan eta, azkenik, **Mola eta Sanjurjo** Iruñeko Erorien Monumentuko hobitik atera zituzten.

Paper birziklatuarekin egindako **jaiotzak** jarri ditu Cesar Menendez-ek herriko bi dendatan

Kristautasunean jaiotza Jesus haurtxoaren jaiotzaren irudikapen plastikoa da, eta kaleetan, dendetan eta eraikin publikoetan ikusten dira Gabonetan. Jaiotzaren irudikapenak denetariokoak izan daitezke: buztin, egur, beira edo beste material bateko figura txikiz osatuta egoten dira. Italian du jatorria jaiotzen kulturak. Jesuitek ostean Ameriketara eramane zuten kultura hori. Eibarren ere badago jaiotzak eraikitzearen artea lantzen duenik: Lola's jantzi-denda eta Unfema burdindegiko erakusleihoetan Cesar Menendez-ek egindako jaiotzak ikus daitezke egunotan. Ondo fijasuz gero, etxetxoak, zubiak, eraikin desberdinak, hormak... paperarekin eginda daudela ikus daitezke.

Cesar Menendez Asturiasen jaio zen (Pravia), baina txikitatik bizi da Eibarren. Duela 20 urte inguru lan istripu larria izan zuen. Mantenimenduan egiten zuen lan eta, tailerlean beharrean zegoela izandako istripuaren ondorioz, zoritxarrez, hanka

bat galdu zuen. Bizitza goitik behera aldatu zitzaion une hartan. Gorabehera asko izan ditu istripua gertatu zitzaionetik, eta, entretenitzeko eta arazoa saihesteko, paperarekin lan egitea bururatu zitzaion. *"Nire eskuetara ailegatzen zen paperarekin piezak egiten eta gordetzen hasi nintzen, eta bildutako material guztiarekin aspaldi lagata nuen zaletasuna berreskuratzea bururatu zitzaidan. Istripua izan aurretik jaiotza tradizionalak egiten nituen. 2x1 metrotako jaiotzak egiten nituen etxean, ikaragarriak!"*.

Paper birziklatua erabiltzen du Cesarrek jaiotzetako elementuak egiteko. *"Edozein motatako papera izan daiteke: medikamentuen prospektuak, buzoietara botatzen duten publizitatea... Paper-zerrendak egiten ditut, tolestu eta gurutzatu egiten ditut, makrame egiteko erabiltzen den teknika bera erabiliz"*. Paperak berez duen elastikotasunari esker lortzen du, esate baterako, zubiak egitea. Pieza txikiak iza-



Ibarkurutzeko iturria paperarekin erreproduzitu nahi du Cesarrek.



Jaiotzak Lola's jantzi-dendan eta Unfema burdindegian ikus daitezke.

ten dira zailenak: 2 mm²ko piezak egitea lortu duela adierazi digu Cesarrek. Eskuekin oso trebea izatea eskatzen duen lana da, eta hori badauka Cesarrek.

Aurrera begira, Iburkurutzeko iturria paperarekin erreproduzitzeko asmoa dauka. Izan ere, paperak oso ondo imitatzen du harria, eta paperaz gain ura ere erabiltzeko asmoa dauka Cesarrek. Zer da ba iturri bat urik gabe?

Bidebarrieta kaleko Unfema burdindegian iaz ere jarri zuen jaiotza, eta aurrean Errebal kaleko Lola's dendakoak ere animatu dira. Piezak desmontatu eta berriro erabil daitezke beste gauza bat egiteko.

TXOKO

*Giro alaiak
Gabon Zaharreen!*

UNTZAGA PLAZA, 10
20600 EIBAR

Radio Eibar

CADENA
SER

104,0 FM

Izadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29



Gabon Zahar Feria ELGOIBARREN

Guztira, ehun saltokitik gora jarriko dira bihar, zapatua, Elgoibarren, bertako produktuarak erakutsi eta saltzeko. Urtero bezala, herriko eta inguruetako baserriarrek eta abeltzainek egiten duten lan nekazainaren erakusgai izango dira bertan ikusi eta eskuratu ahal izango diren barazkiak, fruituak, loreak, eztiak, gozokiak, ogia, gazta... Nobedade gisa, aurten Elgoibarko artisauek izango dira Maalako parkean. Gazta Lehiaketa Gabon Zahar feriarako ekimenik esanguratsuenetarikoa da. Aurten ere, bederatzigarren urtez, gaztagilerik onenak izango dira Elgoibarren, nor baino nor, 2016ko gazta onenaren saria eskuratzeko helburuarekin.



Pailazozen ikuskizuna SORALUZEN

Gari, Montxo eta Joselontxo pailazozen ikuskizuna izango da Soraluzeko herri antzokian urtarrilaren 3an, martitzenean. Ekitaldi hau 4 urtetik aurrerako neska-mutikoentzat prestatu dute, gabonetako ekintzen barruan.



Olentzero ERMUAN abenduarien 31n

Urtero abenduaren 31n, Olentzero menditik jaisten da herrira, umeei opariak ekartzera eta ez hilaren 24an, Euskal Herriko beste udalerrietan ohikoa den bezala. Egun aldaketa honen arrazoiak diktadura garaian dago; izan ere, behin ez zen garaz lortu ekitaldi hau ospatzeko administrazio-baimena eta hori dela eta, eguna atzeratu behar izan zuten.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea	Astlehena

hildakoak

- Lazaro Atxotegi Gisasola. 86 urte. 2016-XII-22.
- Jose Alberto Baglietto Arrizabalaga. 74 urte. 2016-XII-22.
- Elias Teruel Luque. 81 urte. 2016-XII-23.
- Pedro Alberdi Txintxurreta. 63 urte. 2016-XII-23.
- Mercedes Garate Mugerza. 98 urte. 2016-XII-23.
- Manoli Aierdi Etxeberria. 93 urte. 2016-XII-24.
- Ramon Aldalur Maguregi. 80 urte. 2016-XII-24.
- Piedad Garcia-Anton Fuerte. 87 urte. 2016-XII-25.

jaiotakoak

- Maya Iñan Garrido. 2016-XII-19.
- Nora Agirrebeña Rodriguez. 2016-XII-20.
- Luka Elkoroiribe Rodriguez. 2016-XII-22.
- Jakes Ibarbia Bilbatua. 2016-XII-23.

telefono jakingarriak

SOS deiak.....112	Mendaro osp.....943 03 28 00
Pegora.....010	Anbulategia.....943 03 25 00
Udaletxea.....943 70 84 00	Torrekua.....943 03 26 50
Portalea.....943 70 84 39	Errepideak.....902 11 20 88
Udaltzaingoa.....943 20 15 25	Ertzaintza.....943 53 17 00
Mankomunitatea.....943 70 07 99	Eusko Tren.....902 54 32 10
Debegesa.....943 82 01 10	Lurraldebus.....900 30 03 40
KIUB.....943 20 38 43	Pesa.....900 12 14 00
Epaitegia.....943 03 34 00	Taxiak.....943 20 30 71
Iberdrola.....901 20 20 20943 20 13 25
Naturgas.....902 12 34 56	Alkohol.Anon.....629 14 18 74
DYA Larrialdia...943 46 46 22	Al-Anon/Alateen...650 26 59 63
Gurutze Gorria....943 22 22 22	

farmaziak

- Eguena 29
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Barixakua 30
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
- Zapatua 31
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)

URTARRILA

- Domeka 1
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Astlehena 2
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Martitzena 3
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Eguaztena 4
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Eguena 5
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Barixakua 6
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Zapatua 7
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Domeka 8
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Astlehena 9
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Martitzena 10
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Eguaztena 11
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Eguena 12
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Barixakua 13
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI - 2017AN-
Mandiola (S. Agustin, 3)

			1			6
		5	9			
8	1	2	7			
4	7	1	5	3		
	5					9
		2	3	8	4	7
		3	2		8	5
		8	1			
7			4			

SUDOKUA

6	3	9	4	2	1	7	8	5
2	7	1	5	9	8	6	3	4
5	8	4	6	7	3	9	2	1
7	1	8	2	3	4	5	9	6
4	9	6	8	1	5	2	7	3
3	5	2	7	6	9	4	1	8
9	4	5	1	8	7	3	6	2
8	6	3	9	4	2	1	5	7
1	2	7	3	5	6	8	4	9

AURREKOAREN EMAITZA

Eguena 29

HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta

16:30/20:30. Astelena Gabonetako haur-parkea. Astelena frontoian.

GABONETAKO AZOKA

11:00/14:00 eta

17:00/20:30. "Made in Eibar" Gabonetako azoka. Topalekuan.

IKASTEN

17:45. Dantzaldia. Untzagako jubilatutuean.

KALEETAN KANTUZ

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ERABAKI BIOT

19:30/20:30. Gure Esku Dago-ren ekimenaren aldeko sinadurak. Deporren.

KONTZERTUA

20:30. "The very best of Dire Straits" (Brothers in Band). 28 euro. Coliseoan.

Barixakua 30

HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta

16:30/20:30. Astelena Gabonetako haur-parkea. Astelena frontoian.

GABONETAKO AZOKA

11:00/14:00 eta

17:00/20:30. "Made in Eibar" Gabonetako azoka. Topalekuan.

ERABAKI BIOT

19:30/20:30. Gure Esku Dago-ren ekimenaren aldeko sinadurak. Deporren.

Zapatua 31

HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta

16:30/20:30. Astelena Gabonetako haur-parkea. Astelena frontoian.

GABONETAKO AZOKA

11:00/14:00 eta

17:00/20:30. "Made in Eibar" Gabonetako azoka. Topalekuan.

EIBARKO KIROL SARIAK

12:00. Eibarko Kirol Sariak. Coliseoan. ...eta kitto!-k antolatuta.

KONTZERTUA

13:00. "Wien Quintet Molto Vivace". Sutondo Labaderokuan (Bittor Sarasketa, 1 ac).

SAN SILBESTRE

16:30. XXVI. San Silbestre lasterketa. Aixolan.

Domeka 1

URKORA IGOERA

09:00. Klub Deportiboaren paretik irteera.

10:00. Ixuan elkartuko dira.

10:30. Argazkia tontorrean.

Astelehena 2

HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta

16:30/20:30. Astelena Gabonetako haur-parkea. Astelena frontoian.

GABONETAKO AZOKA

11:00/14:00 eta

17:00/20:30. "Made in Eibar" Gabonetako azoka. Topalekuan.

EUSKAL GAZTE ORKESTA

17:00. Orkestaren entsegua. Hezkuntza Esparruan.

Martitzena 3

HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta

16:30/20:30. Astelena Gabonetako haur-parkea. Astelena frontoian.

GABONETAKO AZOKA

11:00/14:00 eta

17:00/20:30. "Made in Eibar" Gabonetako azoka. Topalekuan.

ANTZERKIA

17:00. "Magiaren lapurra" (Txalo Produkzioak) umeendako antzezlan. 5 euro. Coliseoan.

MELTXOR ERREGEA

17:30. Meltxor erregearen bisita. El Corte Inglesean (sarreran).

HARIXA EMOTEN

19:00. Idazlearekin Harixa Emoten: "X hil da", Alaine Agirre. Portalean.

ERABAKI BIOT

19:30/20:30. Gure Esku Dago-ren ekimenaren aldeko sinadurak. Deporren.

Eguaztena 4

HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta

16:30/20:30. Astelena Gabonetako haur-parkea. Astelena frontoian.

GABONETAKO AZOKA

11:00/14:00 eta

17:00/20:30. "Made in Eibar" Gabonetako azoka. Topalekuan.

Eguena 5

GABONETAKO AZOKA

11:00/14:00 eta

17:00/20:30. "Made in Eibar" Gabonetako azoka. Topalekuan.

HIRU ERREGEAK

17:00. Ipurua Dantza Garaikidea, Ipurua Gimnasia Erritmika eta Eibarko Balleta taldeen dantza-erakustaldia. Ipurua kiroldegian. 19:00. Hiru Erregeen kabalgata, Eibarko Cielito Musika Bandak lagunduta. Irteera Untzagatik.

ERABAKI BIOT

19:30/20:30. Gure Esku Dago-ren ekimenaren aldeko sinadurak. Deporren.

Barixakua 6

ERABAKI BIOT

19:30/20:30. Gure Esku Dago-ren ekimenaren aldeko sinadurak. Deporren.

Zapatua 7

HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta

16:30/20:30. Astelena Gabonetako haur-parkea. Astelena frontoian.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. HHko umeak (2-5 urte) jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegian.

Domeka 8

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. HHko umeak (2-5 urte) jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegian.

Martitzena 10

IKASTEN

10:00. Asier Errasti ikus-entzunezko jaialdiko laburmetraien proiektzioa, Juan Aldairen eskutik. Hezkuntza Esparruan.

TAILERRA

18:30. "Historias de mujeres" literatura tailerra, Leticia Martinez-Alcocerren eskutik: Simone de Beauvoir. Portalean.

ERABAKI BIOT

19:00. Gure Esku Dago-ren ekimenaren aldeko sinadurak. Deporren.

Eguaztena 11

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Eguena 12

HITZALDIA

19:00. "Como mantener el cerebro en forma para alejar el Alzheimer", Gurutz Linazasoro neurologoaren (Policlinica Gipuzkoa) eskutik. Portalean.

ERABAKI BIOT

19:30/20:30. Gure Esku Dago-ren ekimenaren aldeko sinadurak. Deporren.

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, BITTOR, atzo urtetxua bete zenduan-eta. Segi zure irribarre eder horrekin! Etxeko guztion partez.




Zorionak, MANEX, pirata! hillaren 27xan sei urte bete zenduaz-eta. Musu potolo bat etxekuen eta, batez be, anaixa Ametsen partez.



Zorionak, EKHI, urtarrillaren 3an 9 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Eñauten partez.



Zorionak, MALEN, bixar bost urte egingo dozuzelako. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Aioraren partez.



Zorionak, JON, mutil haundi!!!, gaur sei urte bete dozuz-eta! Musu haundi-haundi bat danon partez.



Zorionak, ALICIA, hillaren 31n zure eguna ospatuko dogu-eta. Zure guraso, senarra eta semiaren partez.

Erakusketak

Abenduaren 31ra arte:

- ESTEBAN D' AZUAREN argazkiak. *(Portalea tabernan)*
- BAKARNE ELEJALDEREN argazkiak. *(El Ambigú-n)*
- ARGAZKI IKASTAROKO IKASLEEN argazkiak. *(Klub Deportivoan)*
- JOSE LUIS IRIGOIENEN "India" argazkiak. *(El Corte Ingles-ean)*

Urtarrilaren 8ra arte:

- MARINA ETXEBERRIAREN "Eremuak / Mozketak" margo-erakusketa. *(Portalean)*
- KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEAREN erakusketa. *(Portalean)*

Datozen hilabeteotan:

- CASA DEL PUEBLO-REN MENDEURRENARI buruzko argazki-erakusketa. *(Casa del Pueblo-n)*

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

30ean: 19:45, 22:30

1ean: 20:00

2an: 20:30

"El editor de libros"

Zuzendaria: Michael Grandage



(2 ARETOAN)

30ean: 19:45, 22:30

1ean: 20:00

2an: 20:30

"Assassin's Creed"

Zuzendaria: Justin Kurzel



(ANTZOKIAN)

30ean: 19:45, 22:30

1ean: 20:00

2an: 20:30

"Passengers"

Zuzendaria: Morten Tyldum



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke Eibarren alokairuan. Tel. 631-252750.
- Pisua hartuko nuke Eibarren alokairuan. Tel. 628-747805.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Taberna traspasatzen da Eibarren. Tel. 628-235319.

3.2. Errentan

- 100 m²ko lokala alokairuan Elgoibarko Sigma poligonoan. Erabilera anitza: bulego, biltegi... Instalazio elektriko eta urarekin. 400 euro. Tel. 686-888004.
- 18 urteko gorako gazteentzat aukerako lokala alokagai. Ondo prestatutakoa. Tel. 600-890245.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Esperientzia eta formakuntza. Tel. 671-989434.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko etabar. Tel. 656-788741.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Externa. Tel. 640-315602.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 603-683176.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta formakuntza. Tel. 602-810654.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 602-047812.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 681-065683.
- Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Ordu-tegi zabalak. Tel. 602-001567.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Ordu-tegi zabalak. Tel. 631-499198.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Ordu-tegi zabalak. Tel. 628-765929.
- Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Ordu-tegi zabalak. Tel. 695-917617.

- Haur Hezkuntzako teknikaria eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 651-706980. Asier.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da etxeak edo pegoarako garbitzeko eta asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 680-981704.
- Emakumea eskaintzen da dendarri jarduteko, sukaldean laguntzeko eta tabernak edo lokalak garbitzeko. Tel. 666-008974.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-123942.
- Emakumea eskaintzen da 09:00etatik 17:00etara nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 634-446252.
- Neska eskaintzen da 09:00etatik 16:00etara etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 622-417528.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-747703.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 615-394820.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldeko nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 658-458061.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-988471.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta dendarri jarduteko. Tel. 632-426847.
- Neska euskalduna eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.
- Eibarko emakume arduratsua eskaintzen da goizez edo ordu solteetan administrazio lanak egiteko. 10 urteko gorako eskarmen-tua. Tel. 658-845081.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 632-546032 eta 669-179522.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak (baita ospitalean ere) zaintzeko eta garbiketara lanetarako. Tel. 688-959575.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-572229.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-227800.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 661-001246.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 605-303657.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 658-158036.
- Emakumea eskaintzen da 15:00etatik aurrera umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 654-304337.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-533729.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldeko eta gauez nagusiak zaintzeko. Tel. 689-003537.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 664-357381.
- Gizona eskaintzen da kamioia gidatzeko, garbiketarako egiteko eta zinpeko zain-tzaile jarduteko. Tel. 666-655269.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta dendarri jarduteko. Tel. 632-426847.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 602-193518.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-808125.

4.2. Langile bila

- Ugan klubak jarduera ezberdinetarako monitoreak behar du (jornada erdiz). Curriculumak Ugan-era eramane (Calbeton, 21) edo uganklub@gmail.com helbidera bidali.
- Langilea behar da Amañako okindegi-kafetegian. Tel. 670-251280. jantae-dan@hotmail.com
- Estetizista behar da Eibarko zentro bate-tarako. Bidali curriculumak: esteticienei-bar@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate maila-tako matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Safretti bioetanol tximinia salgai. Prezio negoziagarria. Tel. 648-180634.

6.2. Eman

- Txakur "ratoneroak" oparitzen dira. Urria-ren 20an jaiotakoak. Tel. 602-457169.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Patinete Micro laranja galdu zen Urkizu-ko parkean aurreko domeka eguerdian. Hiru erroberakoa. Tel. 666-195711.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA


- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak



CAMBRIDGE ENGLISH

Language Assessment

Authorised Centre

CAMBRIDGE ESOL EXAMINATIONS CENTRE ES438

MARTXOKO DEIALDIA
AZTERKETAK Eibarren, Durangon, Arrasaten eta Bilbon

MATRIKULAK
Urtarrilaren 9tik 26ra

AZTERKETA DATA

PET	(PAPERS 1,2,3,4)	Martxoak 18 (larunbata)	AHOZKOA 18AN
FCE	(PAPERS 1,2,3,4)	Martxoak 4 (larunbata)	AHOZKOA 4AN
FCE FS	(PAPERS 1,2,3,4)	Martxoak 18 (larunbata)	AHOZKOA 18AN
CAE	(PAPERS 1,2,3,4)	Martxoak 11 (larunbata)	AHOZKOA 4AN

INFORMAZIO ETA MATRIKULAK

ARRASATE:	Parlance	943 77 06 83	ONDARROA:	Howdy	96 683 23 79
	Idiomaster	943 79 07 84	DEBA:	Akabi	943 19 16 79
BERGARA:	Espolon School of English	943 76 03 53		North Street English	943 19 25 00
BILBAO:	Capital Languages	94 445 73 04	DURANGO:	San Jose Maristak	94 681 00 58
EIBAR:	Anglo-American	943 20 01 08	MENDARO:	Akabi	943 75 50 55
	Link Idiomias	943 20 39 59	MARKINA:	Chatterbox	94 616 96 39
ERMUA:	Akerlei	943 17 66 32	ELORRIO:	Ontrack Hizkuntza	94 658 46 73
ELGOIBAR:	Kensington School of English	943 74 02 36	BERRIZ:	Speak up	94 622 52 94
	Key Academia de Inglés	943 74 30 44	ZUMAIA:	Golden Gate	943 86 50 20
OÑATI:	Academia Sheila Fritz	943 78 20 91	MUTRIKU:	Gogoz	943 60 43 58

ORBEA HAURRESKOLA



Bittor Sarasketa, 11
 943 20 03 84 [HaurreSkolaK](http://HaurreSkolaK.com)
 orbea.eibar@haurrekolak.eus

URTE BERRI ON!!



Badira plaza libreak



Etorri eta galdetu!





Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak

Uzte Berri On!



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun

 innovadental
clinicas

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com